


berbarotarra



elkartea

“Liburu bat, lagun bat”




Irakurri, entzun, imajinatu, ametsetan egin, gozatu... Haur Literatur Aretoaren magia.

Sorpresa, harridura, curiositate eta izu aurpegiren bat ere ikusi dugu. Aurten, txiki eta ez hain txikien gozamenarako zabaldu da Azokako handitasunean liburu mundurako atetxo txiki bat. Erraldoi, aker eta euskal mitologia-ko pertsonaien ongi etorriarekin Euskal Herriko familia askok pasatu nahi izan dute ate txikia (koskorrekoren bat hartuta batek edo bestek) bertako gunean umeekin liburu artean gusturā egon edo egunean zehar antolatutako ekintzetan parte hartzeko. Jendearen ahotik balorazio ona entzun da, orokorrean txalo artean hartu da Gerediagak aurten umeen alde egindako apustua eta geuk antolatze-

ko zortea izan duguna. Urte asko daramatzagu ildo honetan lanean, irakur zaletasuna gure umeengan bultzatu nahian. Aurten ere, urtero moduan, ikastetxeentzako antolatzen dugun Haur Literatur Aretoak bere lehen urratsak eman dituela esan nahi dizuegu, 15. urtez. San Agustin hortxe dugu, liburuekin apainduta, bizi-bizi, Durangoko ikaste txeetako ume guztiak bertan hartzeko prest abenduaren 9tik 21era bitartean.

“Liburu bat lagun bat”, hau ez dadila Azokako beroaldiak eragindakoa bakarrik izan eh!, egunean eguneko erronka zuen esku. *Eskerrik asko!*

SASOIA ZAN!




Urte askotako lanaren ostean, joan zan urriaren 28an zabaldu ebazan atea Durangoko Plateruena Kafe Antzokiak. Urtebete eraikuntza lanetan gogor aritu ostean, azkenean gauzatu ahal izan dogu durangaldean euskalgintzaren aterpea izan gura dauan gunea. Aipatu beharra dago hau guztiau ezin izango zala egin auzolanean aritu zarien Berbarotar, Plateruenerako akziodun eta enparauen lanik barik, ez gero!

Horrek kontu zaharrak dira, baina. Ia hilabete bi pasatu dira atea zabalduta genduzanetik, eta tarte horretan hamai-ka ikuskizun eta ekitaldiz gozatzeko aukera izan dogu. Dane tik izan dogu: musika, umeentzako antzerkia, hitzaldiak, diaporamak, literatur irakurraldiak, ikastaroak, e.a.

Ganera, Durangoko Liburu eta Disko Azoka pasatu barri da eta balorazino ezin hobea egiten dogu. Egunero aurkeztu doguz disko barriak zuzeneko kontzertuetan eta, batzaz beste, 400 ikusletik gora izan doguz egunero. Horrez ganera, bertso saio eta dantza ikuskizunak be izan doguz egunean zehar. Egunero Euskal Herriko bazter guztietatik etorritako milaka bisitari hartu doguz gurean. Pozgarria benetan.

Orain artekoan gehien poztu gaituena bertoko herritarrengandik jasotako babesa izan da. Hasierak beti dira gogorak eta nekezak, baina Plateruenean lehenengo egunetik gehiago jaso dogu herritarren harrera bero eta gozoa. Antolatutako ekintza guztietan gainezka egon da antzokia, bardin hitzaldietan zein rock kontzertuetan. Antolatutako ikuskizunen arabera halako zein bestelako jendea hurre-ratu da, beti be naturaltasunez eta jendarteaz gozatzeko asmoarekin.

Hilabete bi be pasatu ez diren arren, gogoeta baikorra egiten dogu. Aurrerantzean be, orain arteko moduan gogor jarraituko dogu lanean, herriko gainerako elkarte eta taldeekin alkarlana bultzatuz, euskera eta kulturaren alde zintzo eta umiltasunez lanean.



BERBARO TABERNA

Honi be agur esan behar deutsagu, abenduaren 31n atea itxiko ditu-eta. Ziklo bat osatu dau, antza danez, eta egun batzuk bes-terik ez daukozuez modurik onenean agur esateko: Santa Anako tabernan tragotxo batzuk hartuta. Han izango dozuez tabernariak prest bere lana lehenengoko egunetan lez egiteko. Eskerrik asko, egunero tabernara hurreratu zarenoi, baina jakin agurrik ez dala, Plateruenean ikusiko gara-eta.

Sasoi barriak, erronka barriak

15 urte egin baditu be, alkarte gaztea dala esan leiteke. Ziklo eta sasoi desberdinak izan ditu gure alkarteak, danak uneko helburu edo interes gaietara loturik, eta honako edo halako proiektua martxan ipini eta horri ekiteko. Orainsu zabaldu ditu ateak Plateruenak, eta badirudi Berbarok ziklo barri bati ekingo deustola.

Sasoi barriak erronka barriak ekarriko ditu. Horrei aurre egiteko odol barria, ideia barriak izatea be garrantzitsua dala uste dogu. Eta halaxe izango da, alkarteak daukon esperientziari gazteek kolore, soinu eta ilusinoa erantsiko deustie.

Esan deigun ba!: erabarritu egin dogu alkarteak. Nahitaezkoa izan da aldaketak egitea; dakizuenez, langile bik amaitutzat emon dabe Berbaron langile moduan eginiko bizi-zikloa, eta horreen ordez barriak hasi dira: Gorka Barrietabeñak (Txapel) Berbaro sortu zanetik egin dituen dinamizazio lanak Ione Narbaizak egingo ditu hemendik aurrera. Uxune Martinezek administrazio lanak egin ditu eta, hemendik aurrera, Durangoko Udalean hitzarmeneko teknikaria izan dan Rakel Odiagak egingo ditu lanok. Rakelen ordez, Nahia Zarzosak ekingo deustoa Guk Euskeraz hitzarmenaren jarraipenari.

Tartean proiektu, kafe, plan, hamarretako, batzar, hasarraldi, auzolan, afari eta beste hainbeste gertatuko jakuz. Baina guztien gainetik, euskerari bizia emoten segituko dogu.

Erronka barriak ekarriko dituen sasoi itxaropen tsua izango dalakoan gagoz. Ez deigun ahaztu baina, danon arteko eginkizuna dala.

Gorkari, urte luzeak emon baditu be, adiorik ez...

Gazte hasi barriei ongi etorria emotea baino ez jaku geratzen.



Nahia, Ione eta Rakel, lankide berriak.

ESKERRIK ASKO, TXAPEL



Berbaroren hasierako kideek gogoan izango dute dinamizatzaileran lan egiteko agertu zen gazte hura: Gorka, edo Txapel, bakoitzaren gustura. Artean Berbaro ez zen gauza handia, ilusio batuketa bat eta asmo asko, izatekotan ere. Gerediaga Elkartearen bulegoetan egin zioten leku bat eta jakitunekin elkartearen gorabeherak ikasten zituen bitartean, gaztetxoan R5 sastar batean hartu eta gutunak tolestu eta sobreetan sartuz gerturatu zituen elkarera.

Gero etorriko ziren lehenengo Haur

Literatura Aretoa, Abadetxe bulegoa, Pinondo etxekoa, Eraz, Berbaro taberna, Txokoa, Anboto, Kafe antzokia... Aurrera egin duten hamaika asmo eta atzera geratuko ziren beste hainbeste eta, horien bueltan, beti, Txapelaren hiru eguneko bizarraren ostean agertu den irribarre hori.

Tango bati letra aldatuz "hamabost urte ez direla ezer" esan genezake, edo, Txapelaren sasoiokoagoa den beste kantua bati helduz "nola aldatzen diren gauzak, kamarada!". Biek balio dute elkarteko lana utziko duen honetan esan gura dioguna esateko: **eskerrik asko, Txapel!**



Nerea Mujika eta Unai Elorriaga prentsaurrekoan.

AZOKAREN INGURUAN...

1965. urtean, durangar batzuen ekimenari esker, Gerediaga Elkarteak azoka mar txan jarri ebanean "Feria del Libro y del disco vascos" izendatzen zan; 1972rako "Euskal Liburu eta disko azoka" moduan ezagutzera emon zan (azpian Durango eta data jartzen eben orduko kartelak). Aurrerago, "Durangoko liburu eta disko azoka" bezela finkatuko da eta halaxe mantendu dogu 39 urtetan zehar Gerediaga Elkartearen.

"Durango" azokako izenburuan txertatuta bazegoen be, orduko azokak herri barruan eukan eraginak ez dauka zer ikusirik aurtengoak euki dauanarekin, ia berrogei urte pasatu dira eta, jakina, baliabideak, egoera politikoa... ez dira, zorionez, berdinak.

Hasierako azoka, leku batera, Andra Mariko elizpera mugatzen zan gehien baten; ekitaldi bakarren bat frontoian antolatu zan, Bizkaiko Bertsolarien saio bat, adibidez. Datu "historiko" honek aurtengo azokak herri barruan izan dauan hedapenez jabetzeko balio dauku. Gerediaga elkarte eta beste elkarte kultural batzuei esker gure kultura, formatu desberdinetan, herri guztitik zehar zabaldu da. Horretarako azpiegitura desberdinak erabili doguz, zibilak eta erlijiosok, publikoak eta pribatuak... Batzuetan sarrera kobratu da, beste batzuetan ez... Aukera desberdinak pertsona desberdinentzako. Hori, duda barik, garrantzitsua da. Lerro honetatik eskerrak emon nahi dautsodaz, bereziki, Berbaro elkarteari Haur Literatur txokoan egin dauan lan bikainagatik eta baita be, modu batera edo bestera, egitarau honetan parte hartu dabeen herri-elkarteei, danon artean Durango euskal kulturaren erakusleho bihurtu dogulako. Durangarren lanari esker esan geinke, harrokeria handirik gabe, egun horreetan behintzat gure herri hau, Euskal Herriko "hiri kulturala" bihurtu dogula. Ez dedila bakarrik azokako bost egunetako irudia izan...!

*Nerea Mujika
Gerediaga Elkarteko Presidentea
Berbaro Elkarteko bazkidea*

ARANTZA

Interjakintza egitasmo interesgarria martxan ipini dau Durangoko Udalak. Eta lehengo ekintzak egin dira, azaroaren bigarren hamabostaldian: erakusketa bat eta hainbat hitzaldi. Erakusketa txukun ikusi ahal izan dogu euskera aldetik; bestela be bai. Hitzaldietan, ostera, ezin gauza bera esan. Batzuetan, euskeraz berba bat be ez, ezta 'egun on' edo 'arratsalde on' be ez. Beraz, oraingotan *arantza* Durango Udalak merezi dau, Interjakintza proiektuaren ekintzen antolatzailea

LARROSA

Zugaza Zineak merezi dau *larrosa* oraingo honetan. Orain arte, inprimakiak eta gainontzekoak gazteleraz baino ez zituen ataritzen. Aire berriak, erabat aldatu dau zinemanen irudi orokorra: oharrak, sarrerak eta beste hainbat inprimakitan euskera be agertzen da. Liburu eta Disko Azoka egunetan umeentzako euskerazko pelikula ikusteko aukera izan dogu. Oraindik asko dago egiteko zine arloan, baina, egia da aurrera pausu bat izan dala eta ahalegina zorian tzekoa da.

Datozenak

YAKUZI

Plateruena Kafe Antzokian
22:00etan

24a, barikua

OLENTZERO

Irteera San Rokeko Eskoletatik
18:00etan
Amaiera Landako Erakustazokan
19:00etan

26a, domeka

UMEEN GABONETAKO PARKEA

Landako Erakustazoka, 10 urte arte. 1€
Goiz-Arratsalde

ZIRIKA ZIRKUS,

Plateruena Kafe Antzokia
3€ nagusiak doan
17:00etan

27a, astelehena

UMEEN GABONETAKO PARKEA

Landako Gunea 10 urte arte. 1€
Goiz-Arratsalde

28a, martitzena

UMEEN GABONETAKO PARKEA

Landako Erakustazoka, 10 urte arte. 1€
Goiz-Arratsalde

29a, eguaztena

LOOPING BIKE, ROLLER BALL, BIDEO JOKUAK, TAILERRAK...

Landako Erakustazoka, 1€
Goiz-arratsalde

DISKO GAUA

Landako Erakustazoka

30a, eguena

HAURRENTZAKO IKUSKIZUNA

"PATATA, PATATA" PIRRITX ETA PORROTX

Landako Erakustazoka, 3€
18:00etan

URTEKO AZKEN BERTSO SAIOA

Plateruena Kafe Antzokia-6€-4€
Berbaroko kideentzat
20:00etan.